

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5486

1888/2022 EBAZPENA, abenduaren 2koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Miren Idoia Gurrutxaga Arriola andrea Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratutako zuzendari medikoaren lanpostutik kentzen baita.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 438/2017 martxoaren 10eko ebazpenaren bitartez, (2017ko martxoaren 21eko EHAAn -56. zk. argitaratu zen) Miren Idoia Gurrutxaga Arriola andrea, izendatu zen Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratutako zuzendari mediku lanposturako.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Miren Idoia Gurrutxaga Arriola andrea Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratutako zuzendari mediku kargutik kentzea, egindako lanagatik eskerrak emanez.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko abenduaren 2ko laneguna amaitzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau jakinaraztea interesdunari eta Donostialdeko ESlari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurreratu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 2a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.